



Euskara eta euskal kultura sustatzea helburu duen elkarte



Hemen zaude: Hasiera » Jendartea » Sagardoaren Lurralde ezagutzeko ibilaldia, apirilaren 24an

Sagardoaren Lurralde ezagutzeko ibilaldia, apirilaren 24an

noaia 2016-04-14 Jendartea, Kultura

Sagardoaren Lurralde eta lurralde honetako udalen arteko elkarlanaren emaitza da, apirilaren 24rako antolatu duten ibilaldia. Iaz hasi ziren antolatzen, apirilako azken igandean. Eta data horri eutsi nahi diete aurten eta aurrerantzean ere. Sagardoaren lurralde hobeto ezagutzeko aukera eskainiko duen eguna izatea nahi dute. Duela urtebete, Astigarragatik Usurbila antolatu zuten txangoa eta udalerriotako hainbat interes gune bisitatzeko aukera izan zuten.

Aurtengorako Astigarragatik irten eta Hernanira joatea proposatzen digute. Datorren astean izango da. "Ibilaldian zeharko interesgune ezberdinetan azalpenak emango dira Urumea ibaiak gordetzen dituen sekretuak ezagutara emateko", ohartarazi dute antolatzaileek. Amaieran, "Sagardo ibaiak, bizitza iturri" erakusketa bisitatu eta Akarregi sagardotegira bazkaritara joateko aukera izango da:

Apirilak 24, igandea

10:00 Astigarragako Sagardoetxetik abiatuta. Bidean, Lourdes Odriozola Sagardoetxeko historialariaren eta Jexux Mari Gomez Hernaniko Udaleko Artxiboko arduradunaren azalpenak. Osatuko duten bidea: Sagardoetxea, Astigarragako Murgia Markesaren Jauregia, Ergobiko zubia, Martindegi, Epele-Ereñotzu, Osiñaga, Portu auzoa, Hernani.

Helmuga, Biteri kultur etxeko "Sagardo ibaiak, bizitza iturri" erakusketan. Bisita gidatua egingo da.

Jardunaldiaren amaiera, Hernaniko Akarregi sagardotegiko bazkarian.

Izen ematea: 943 550 575 edo info@sagardoarenlurralde.com

Oharra: ibilaldiaren iraupena, bi ordu eta erdi ingurukoa. "Ibilaldi erraza, malda Oialume eta Lastaola poligonoaren artean bakarrik baitago".

Antolatzaileak: Sagardoaren Lurralde.



"Sagardo ibaiak, bizitza iturri" erakusketa maiatzean

Oria eta Urumea ibaiak sagardoaren inguruko hainbat sekretu gordetzen dituzte. Sekretuok aieratzea dator "Sagardo ibaiak, bizitza iturri", Sagardoaren Lurraldeak Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo udalekin eta Donostiako Aquarium-ekin elkarlanean sustatutako erakusketa ibiltaria. Lehenbizi Hernanin izango duzue ikusgai, apirilaren 20an inauguratu eta hilaren 27ra arte. Maiatzean Usurbila dator.

Udal, probintzia eta estatuko artxiboetan eginiko ikerketen emaitza da "Sagardo ibaiak, bizitza iturri" egitasmoa. Orain arte ezezagunak ziren hainbat datu interesgarri eta bitxiez bilduma. Aipaturiko bi ibaiok,



idatzi bilaketa irizpidea bilatu

Eguraldia Usurbilen

Astelehena



21° 15°



34 km/h

Agenda

EKA 13 al.	18:30 Zumartekoen ikasturte amaierako ...
EKA 14 ar.	18:00 Zumartekoen ikasturte amaierako ... 19:00 Usurbilgo 44. Pilota Txapelketa
EKA 15 az.	18:30 Zumartekoen ikasturte amaierako ...
EKA 16 og.	17:00 "Irrien Lagunekin kanta eta dantza" 18:30 Zumartekoen ikasturte amaierako ...
EKA 17 ol.	17:00 Artzabalgo pintura ikastarokoan ... 18:00 Zumartekoen ikasturte amaierako ... 18:30 Nesken futbol taldeak osatzeko e... 19:00 EHBilduren ekitaldia

Egutegia ikusi →

Komunitatea

Sutegi Udal Liburutegia 2016-06-08

J.A. ARTZERREN UNIBERTSOA...
LIBURUTEGIAN ERE IKUSGAI

Ekaina guztian zehar, Usurbilgo Potxoenea



“bi bailara hauetako bizilagunen komunikazio eta harreman ekonomikoen antolaketan eta Gipuzkoako garapen historikoan berebiziko garrantzia izan zutela erakutsi digute”, Astigarragako Sagardoetxetik aipatu digutenez.

Antza, Oria eta Urumea, “aintzina Gipuzkoak izan zituen bi bizitza iturri nagusiak eta bere bizilagunentzako aberastasunaren iturri izan ziren. Une batzuetan, gainera, gune aurrendariak eta puntako teknologiadunak izan ziren eta beren ur-bazterrak istorio ugari eta askotarikoen lekuko izan ziren, esaterako: XVIII. mendeko langileen greba, Ergobiako bidesarian ordaindu behar zen tasa, itsasoa eta portuekin erlazonaturiko zenbait ogibidetan soldataren zati bat ordaintzeko sagardoa erabiltzea, Astigarragako alkate bizargina eta Murgia Jaunen haserre, Ignacio de Soroa untzigile usurbildar ospetsuaren amodio-kontuak...”.

Harpidetu

Albiste hau atsegin baduzu, harpidetu orain horrelako albiste gehiago jaso ahal izateko.



Iruzkina itxita daude.

« Aurrekoa

Hurrengo »

Juanjo Lertxundi 2016-05-29

Erabaki nuen eta ikasi nuen

Eta horrela, asko itxaron ondoren, beste edozein egun baten gisako egun batean



Juanjo Lertxundi 2016-05-20

Hasiberriaren adimena

Ezagutzen dudun gizaki oro nolabait ere ni baino gehiago da. Zentzu horretan,



Juanjo Lertxundi 2016-05-06

Ezkila joka dabil

Bizi oraina, duzun momentu bakarra baita. Zure arreta hemen eta orain dagoen honetan



Juanjo Lertxundi 2016-04-29

ADOREA

Zure denbora mugatua da, beraz ez alferrik galtzera utzi beste pertsona baten bizitza



Sutegi Udal Liburutegia 2016-04-28

V GAZTELERAZKO LITERATURA-TOPAKETA, NADA LIBURUAZ

Ekainaren 1ean (asteazkena), arratsaldeko



Juanjo Lertxundi 2016-04-25

Amets handiak egin, txikitik hasi, eta ekin berehala!

Amets handiak egin, txikitik hasi, eta ekin



Juanjo Lertxundi 2016-04-20

Non zaude orain?

Meditatzerakoan ez gara gizartetik aldentzen, ez dugu jendartetik ihes egiten; aitzitik,



Juanjo Lertxundi 2016-04-06

LONGANIMIDAD

Ezagutzen al duzu Longanimidad kontzeptuaren esanahia? Hitz ezezaguna da



Juanjo Lertxundi 2016-03-29

Gizaki arruntak, zerbait hasten duenean, azkar bukatu nahian pikutara botatzen du.

Gizaki arruntak, zerbait hasten duenean,



IKUSIENAK

BERRIENAK

IRUZKINAK

ARTXIBOA



Usurbilgo Kantu Taldeak, Gipuzkoa Zutik-en kanpaldian abestuko du Aste eta erdi bete du jada,



Ekainaren 19rako erraustegiaren aurkako mobilizazio erraldoia iragarri du GuraSOsek



Ekimen astea deitu du Gipuzkoa Zutik-ek Donostiako Bulebarrean bilduta



2.000 lagun, Gipuzkoa Zutik-ek deituriko manifestazioan Gipuzkoa Zutik indarrak batzen ari



Aldundia eta Kutxabank
inguratzeko deia egin du Gipuzkoa
Zutik-ek, gaur 19:00etan


Jarrai gaitzazu

@noaua(r)en Txioak

Usurbilgo
baserriak eta baserritarrak

Usurbilgo ondarea
ezagutzen

Azken argazkiak



Albiste nabarmenduak



[Bideoa] Jendetza batu da #m29 giza-katean
Erraustegiaren aurka eta osasunaren alde jendetza batu da gaur



“Bazkideak dira NOAUA!ko zutarrak”
NOAUA! Kultur Elkarreak 20 urte bete ditu aurtien. Sagardo Egunaren



Botatzaile onena, Olatz Arregi
Sagardo Eguna 2016ko botatzaile lehiaketan, Olatz Arregiren



Sagardo Eguneako agenda
Igande eguerdian lehertuko da sagardo festa. Baina aurretik, eta

Webmapa

- > Agenda
- > Aldizkaria
- > Argazkitegia
- > Komunitatea
- > Merkatu txikia
- > Noaua TB
- > Noaua!
- > Zorion agurrak
- > Zerbitzuak

Artxiboa


Artxiboa



Noaua Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil
Tf: 943 360 321 erredakzioa@noaua.eus
© 2016 Noaua Kultur Elkartea .

Babesleak:



Loli Lizarralde
ESTILISTA

L'ORÉAL
PROFESSIONNEL
PARIS
Zubiaurenea, 5B
943 361 971

noaua
euskararen
aterpe